

78 **Quincena Musical** **Musika Hamabostaldia**

Abuztua 1-30
Agosto 2017
Donostia
San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritzak
Gobierno Vasco



Balthasar-Neumann-Coro y Solistas
Balthasar-Neumann-Ensemble

Kursaal Auditorioa Abuztua 19 Agosto



Egitarauari buruzko oharra / Notas al programa: Alberto González Lapuente

XVIII. mendearen amaierako eliz musikak, hots esperientziari irmo lotuta, organoan ikusi zuen sakratuaren adierazpena; musika-tresnen erregistro baxuan eta *tempo*aren neurritasunean sakontasunaren ideia; eta erritmo obsesiboan jainkozkoaren aurrean sortzen den beldurra. Kode erlijiosoak beti sendotu zuen estiloaren berezitasuna, bai Schuberten gogo sotil, lasai eta itxuraz laburrean — 1815eko *Stabat Mater* lanean presente —, bai Beethovenek 1807ko *Meza do maiorrean* lanean markatu zuen joritasun dramatiko handiagoan. Kasu honetan, jekuaren beraren irudiari atxikita dago adierazkortasuna, zeinarentzat egitura liturgikoa kortse bat den, “Kyrie” eta “Gloria” ataletan originaltasun bereziz garaitua. Formaren eta soinu substantziaren arteko tentsioak txunditurik utzi zituen garai hartako entzuleak, musikagilearen beraren atsekaberako: “Beethoven maitea, zer demontre egin duzu?” aurpegiatu zion Nikolaus II.a Esterházy printzeak.

Kanonaz kanpoko lan bat ematen zuen, nahiz eta nabarmena zen generoaren arauetara errespetua. Ulermen prozesuak subjektibotasuna eskatzen zuen, eta Franz Schubert gazteenak lortutako ikerketa poetikoan bereganatu zuen, bere zortzigarren sinfonia profanoan, paradoxikoa bada ere. Si minorreko tonalitateak, lehenago lan sinfoniko batean inoiz entzun ez zenak, ematen dio azken zentzua; hasierako motiboak, biolontxeloeekin eta kontrabaxuekin, goraldia irudikatzen du “infernuaren sakonenetik”; erritmo urduariak, handiak, trinkoak, beharrezko motiboak adierazten ditu, vienar tradizio erlijiosoa gogora ekartzen duten hiru tronboien koloreaz tintatuak, requiem mezan bereziki. Bernhard Paumgartner-ek, egileari buruzko monografian, “Schuberten lan sinfonikoen eremu sakratuari” buruz idatzi zuen.

Fuertemente vinculada a la experiencia sonora, la música religiosa de finales del XVIII vio en el órgano la representación de lo sacro, en el registro grave de los instrumentos y en la templanza del *tempo* la idea de profundidad, en el ritmo obsesivo el miedo ante lo divino. El código religioso siempre fortaleció la singularidad del estilo, ya fuera la voluntad aérea, tranquila y de apariencia breve de Schubert, presente en su *Stabat Mater*, de 1815, como el sentido de mayor exuberancia dramática que Beethoven marcó en la *Misa en do mayor*, de 1807. En este caso la expresividad es inherente a la propia imagen del genio, para quien la estructura litúrgica es un corsé vencido con singular originalidad en el “Kyrie” y el “Gloria”. Es la tensión entre forma y sustancia sonora que abrumó a la audiencia de su época para disgusto del propio compositor: “Mi querido Beethoven ¿qué diablos ha fabricado?”, le espetó el príncipe Nikolaus II Esterházy.

Parecía una obra fuera del canon aunque el respeto a los preceptos del género fueran notables. El proceso de comprensión apelaba a la subjetividad luego asimilada en la indagación poética que el más joven Franz Schubert alcanza, paradójicamente en su profana octava sinfonía. La tonalidad de si menor, nunca oída en obra sinfónica, da el sentido postrero; el motivo inicial, con violonchelos y contrabajos, el ascenso “desde las profundidades del infierno”; ritmos nerviosos, solemnes, sólidos, motivos descendentes teñidos por el color de tres trombones acaban por recordar la tradición religiosa vienesa, especialmente en la misa de réquiem. Es Bernhard Paumgartner, en su monografía sobre el autor, quien escribió sobre “el ámbito sagrado de las obras sinfónicas de Schubert”.

Balthasar-Neumann- Coro y Solistas

Balthasar-Neumann-Ensemble

Thomas Hengelbrock, zuzendaria

Detlef Bratschke, abesbatza zuzendaria

Agnes Kovacs, Katja Stuber, Heike Heilmann, sopranoak

Anne Bierwirth, Ida Aldrian, Almira Elmadfa, kontraltoak

Linard Vrielink, Jakob Pilgram, Mirko Ludwig, tenorrak

Thilo Dahlmann, Reinhard Mayr, Stefan Geyer, baxuak

I

Franz Schubert (1797-1828)

STABAT MATER EN SOL MENOR

D.175 (6')

SINFONÍA EN SI MENOR Nº 8 D.759

"INCOMPLETA" (22')

Allegro moderato

Andante con moto

II

Ludwig van Beethoven (1770-1827)

MISA EN DO MAYOR OP. 86 (40')

Kyrie

Gloria

Credo

Sanctus - Benedictus

Agnus Dei

Babeslea / Patrocina



Balthasar-Neumann-Chor

Thomas Hengelbrockek sortu zuen, 1991n, Balthasar-Neumann-Chor, eta oso denbora laburrean —eta Hengelbrocken beraren gidaritzapean— nazioarteko ospe handia eskuratu zuen taldeak. 2011n, *Gramophone* britainiar aldizkariak argitaratu zuen munduko abestalde onenetakoa zela, bere musikalitate altuagatik eta erakusten duen moldakortasun artistikoagatik. Taldeko abeslari bakoitza, bakarlari gisa zein talde osoarekin abesteko dago trebatuta, eta, era horretan, malgutasun handia eta oso errepertorio zabala dute. Errepertorio hori garai erromantikoan eta obra garaikideen estreinaldian zentratzen da, baita XVII. eta XVIII. mendeetako musikan ere. Taldeak nazioarteko ospe handia eskuratu du bere ekoizpen eszeniko berritzaileak direla— eta, hainbat diziplina artistiko bateratzen baitituzte; bateratze horretatik sortu dira — Klaus Maria Brandauer eta Johanna Wokalek antzezleekin elkarlanean— musika eta literatura uztartzen dituzten hainbat proiektu, eta baita “Nachtwache” CDa ere, Erromantizismoko *a cappella* obrak lirika eta prosarekin konbinatzen dituena. Garrantzi handiko onespének eta sariak jaso ditu bere ibilbidean Balthasar-Neumann Abesbatza eta Ensembleak, nola diren Baden-Württemberg Estatuko Kulturpreis, hainbat ECHO, eta, duela gutxi, Gramophone Award saria, “Lotti-Zelenka-Bach” CDaren grabazioagatik.

Thomas Hengelbrock funda en 1991 el Balthasar-Neumann-Chor, que en corto plazo y bajo su dirección, consigue alcanzar un gran prestigio internacional. En 2011 fue considerado por la revista británica *Gramophone* como uno de los mejores coros del mundo, debido a su alta calidad musical y versatilidad artística. Cada uno de los cantantes del coro está preparado para cantar bien como solista o bien como parte del coro, permitiendo una flexibilidad única y pudiendo así abarcar un amplio repertorio; éste está enfocado en la época romántica y en el estreno de obras contemporáneas, así como en la música de los siglos XVII y XVIII. El coro ha adquirido prestigio internacional por sus innovadoras producciones escénicas, vinculando diferentes géneros; de esta fusión surgieron, junto al actor Klaus Maria Brandauer y la actriz Johanna Wokalek, diversos proyectos músico-literarios, así como el CD “Nachtwache” que combina obras a capela del romanticismo con lírica y prosa. La trayectoria del Coro y Ensemble Balthasar-Neumann ha sido objeto de importantes reconocimientos y condecoraciones, como el Kulturpreis del Estado de Baden-Württemberg, varios Echos y recientemente, el Gramophone Award por la grabación del CD “Lotti-Zelenka-Bach”.



Balthasar-Neumann-Ensemble

Thomas Hengelbrockek sortu zuen 1995ean nazioarteko musikari bikainak elkartuz. Bere estilo zehatzari eta interpretazio berritzaileari zor dio ensemble honek gaur duen ospe handia. Errepertorio-lanaren eta ikerketa-eginkizunaren sintesi lana egin nahi du; sintesi horixe da taldearen kontzertu-egitarauen eta opera-proiektuen ezaugarri nagusia, eta hainbat garai eta musika-genero lantzen ditu, gainera. Balthasar-Neumann-Ensemblearen musika-interpretazioak historikoki dokumentaturiko oinarria du, eta, hori dela-eta, egiazko tresnak erabili eta kontzertu-areto bakoitzera egokitutako obrak aurkezten ditu, lehen-lehen Barrokotik hasita, XX. mendearen hasiera arte. Europako jaialdi eta musika-zentro nagusietara gonbidatu ohi dute ensemblea: Baden-Badengo Jaialdia, Parisko Opera, Madrilgo Errege Antzokia, Dortmundeko Konzerthaus, Essengo Philharmonie, Salzburgoko Jaialdia, etab. Teodor Currentzis eta Pablo Heras-Casado zuzendariak, besteak beste, ensemblearekin elkarlanean aritzen dira, Thomas Hengelbrock zuzendari artistikoak eta Balthasar-Neumann-Chor abestaldeak antolatutako hainbat proiektutan. Duela gutxi parte hartu du taldeak Donizettiren “L’elisir d’amore” eta Mozarten “Don Giovanni” operen DVDko grabazioetan, Rolando Villazonekin, aurrenekoan, eta Anna Netrebko eta Erwin Schrottekin, bigarreanean.

Thomas Hengelbrock funda el Balthasar-Neumann-Ensemble en 1995, reuniendo a excelentes músicos internacionales. El grupo debe su prestigio a su innovadora y precisa interpretación musical, y pretende alcanzar una síntesis entre el trabajo de repertorio y una labor de investigación que caracteriza sus programas de concierto y proyectos operísticos, abarcando diferentes épocas y géneros musicales. Su interpretación musical se sustenta sobre una base documentada históricamente, por lo que las obras desde el Barroco más temprano hasta principios del siglo XX son presentadas con un instrumental auténtico y adecuado a cada sala de concierto. El ensemble es invitado además a los escenarios y centros musicales más importantes como el Festival de Baden-Baden, Ópera de París, Teatro Real Madrid, Konzerthaus Dortmund, Philharmonie Essen o el Festival de Salzburgo. Directores como Teodor Currentzis o Pablo Heras-Casado colaboran regularmente con el ensemble, junto a diversos proyectos elaborados entre el director artístico Thomas Hengelbrock y el Balthasar-Neumann-Chor. Recientemente ha participado en grabaciones en DVD de “L’elisir d’amore” de Donizetti con Rolando Villazón y “Don Giovanni” de Mozart con Anna Netrebko y Erwin Schrott.



Thomas Hengelbrock

NDR Elbphilharmonie Orchester-en zuzendari nagusia da, Balthasar-Neumann-Ensembleen sortzailea eta zuzendaria da, eta Parisko Orkestraren “Chef associé”. Bere errepertorioa oso zabala da, XVII. mendeko musikatik hasi eta lan garaikideetaraino, eta genero guztiak biltzen ditu. Bide berriak aurkitzeko borondate sendoaren eta inolako ildori jarraitzen ez dion musika interpretatzeko moduaren ondorioz, Thomas Hengelbrock da gaur egun eskaera gehien jasotzen dituen zuzendarietako bat. Lan garaikideen eta Barrokoko lanen arteko fusioa lortzen du, dramaturgia sofistikatu baten barruan, eta, horretarako, hainbat genero lotzen ditu, hala nola, musika, literatura, antzezpena eta dantza, eszena proiektu guztiz berezietan. Hainbat orkestrarekin jardun du, hala nola Municheko Filarmonikoa, Bavariako Irratiko Sinfonikoa, Vienako Filarmonikoa eta Amsterdameko Concertgebouw-ko Orkestra. Horrez gainera, antzoki handietan zuzendu ditu operak: Madrilgo Errege Antzokia, Parisko Opera, Baden-Badengo Jaialdia eta Dortmundeko Konzerthaus, eta Plácido Domingo, Cecilia Bartoli, Anna Netrebko eta Christian Gerhaher-ekin batera aritu da. 4 CD grabatu ditu Mahler, Dvorák, Mendelssohn, Schumann eta Schubert-en sinfoniekin, eta hainbat bira egin ditu Alemania, Europa eta Asian barrena, bere orkestrekin batera.

Es director principal de la NDR Elbphilharmonie Orchester, fundador y director de los Balthasar-Neumann-Ensembles y “Chef associé” de la Orquesta de París. Su repertorio abarca desde la música del siglo XVII hasta obras contemporáneas e incluye todos los géneros. Debido a su firme voluntad de descubrir nuevas vías y su forma de interpretación musical que no sigue ninguna línea, Thomas Hengelbrock es uno de los directores más solicitados de la actualidad. Logra una fusión entre obras contemporáneas y del Barroco dentro de una dramaturgia sofisticada, vinculando diferentes géneros como la música, la literatura, la actuación y la danza en originales proyectos escénicos. Ha actuado junto a orquestas como la Filarmónica de Munich, Sinfónica de la Radio de Bavaria, Filarmónica de Viena o la Orquesta del Concertgebouw de Ámsterdam, y ha dirigido óperas en el Teatro Real de Madrid, Ópera de París, Festival de Baden-Baden y Konzerthaus de Dortmund, junto a intérpretes como Plácido Domingo, Cecilia Bartoli, Anna Netrebko y Christian Gerhaher. Cuenta con 4 grabaciones en CD con sinfonías de Mahler, Dvorák, Mendelssohn, Schumann y Schubert, y ha realizado numerosas giras por Alemania, Europa y Asia junto a sus orquestas.

Schubert: Stabat mater D 175

Stabat Mater dolorosa
juxta crucem lacrimosa,
dum pendebat Filius.

Cujus animam gementem,
contristatam et dolentem,
pertransiuit gladius.

O quam tristis et afflicta
fuit illa benedicta
Mater Unigeniti!

Quae maerebat et dolebat,
pia Mater, dum videbat,
nati poenas inclyti.

Fuente:

Graduale Triples, Paris, Tournai 1979

Oinazez zegoen Ama
gurutzearen ondoan negarrez,
eta han zintzilik Semea.

Haren arima intziri-egilea,
mindua eta atsekabetua,
ezpatak urratu zuen.

Oi, zeinen tristea eta samina
Seme Bakarraren
Ama bedeinkatua!

Makaltzen zen, oinazetzen zen
eta dardaratzen zen,
bere Seme gorenaren nekeak ikusirik.

Estaba la Madre dolorosa
junto a la Cruz, llorosa,
en que pendía su Hijo.

Su alma gimiente,
contristada y doliente
atravesó la espada.

¡Oh cuán triste y afligida
estuvo aquella bendita
Madre del Unigénito!

Languidecía y se dolía
la piadosa Madre que veía
las penas de su excelso Hijo.



Cuando el Balthasar
Neumann Chor & Ensemble
toca, hasta el elemento más
inerte reacciona.

Como fabricante líder en el mundo de productos químicos especiales, fusionamos una gran variedad de disciplinas para desarrollar las soluciones más avanzadas para nuestros clientes. Es un concepto de especialización interdisciplinaria que ya aplicaba el gran arquitecto y artista del Barroco alemán Balthasar Neumann. Por eso nos llena de orgullo colaborar con el Balthasar Neumann Chor & Ensemble y con su director y fundador Thomas Hengelbrock. Más información en: www.balthasar-neumann.com